

Hitz zentroa aurkeztu dute, «hizkuntza teknologien ikerketan sakontzeko»

berria.eus/albisteak/189327/hitz-zentroa-aurkeztu-dute-hizkuntza-teknologien-ikerketan-sakontzeko.htm

Berria



Hitz zentroa aurkeztu dute gaur Donostian Hitz

Transformazio digitalarekin ezinbesteko bihurtu da hizkuntza teknologien ikerketan sakontzea, eta helburu horretan laguntzeko sortu dute Hitz ikerketa zentroa. Gaur egin dute zentroaren aurkezpena, Donostian. Gizartean, enpresetan eta erakundeetan «hizkuntza-teknologiaren transferentzia masiboa aktibatzen» sortu dute zentroa, Eneko Agirre zentroko zuzendariak azaldu duenez. Haren hitzetan, EHUko ikerketa zentro berriak «teknologiaren transferentzian, kulturgintzan, gizarte garapenean eta formakuntzan» lan egingo du, eta hizkuntzaren teknologietan eta euskararen «tratamendu konputazionalen» erreferente bilakatu nahi du. «Inguruko ikerkuntza zentro, zentro teknologiko, enpresa eta erakundeekin elkarlanean, Euskal Herria Europako hizkuntza teknologia eta adimen artifizialaren gune bihurtu nahi dugu».

Gaurko aurkezpenean, Jokin Bildarratz Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak, Markel Olano Gipuzkoako ahaldun nagusiak eta Nekane Balluerka EHUko errektoreak ere parte hartu dute. Bildarratzek azpimarratu du Hitz zentroak bat egiten duela «egungo hizkuntza teknologia beharrekina eta etorkizuneko erronka eta aukerekin». Haren esanetan, hiru ezaugarri bat egiten dute zentro berriak: hedapenak, bikaintasunak eta internazionalizazioak.

Balluerkaren esanetan, berriz, «oso pozgarria» da unibertsitatearentzat horrelako zentro bat sortu izana. Nabarmendu du Hitzen ekarpenak «estrategikoak» izango direla adimen artifiziala garatzeko, eta zientzia aplikatuen eta esperimentalen prozesatzeetan aurrerapenak egiteko balio izango dutela haren lanek.

Asteko gai hautatuekin osatutako albiste buletina. Astelehenero, **Astekaria** ezinbesteko erreportajeak, elkarrizketak, iritziak eta kronikak zure posta elektronikoan.

Albiste gehiago



Eusko Jaurlaritzak tabernak itxi, eta etxeratzea 22:00etara aurreratu du

Lander Muñagorri Garmendia - Andoni Imaz

Farmaziek eta gasolindegiek izan ezik, gainerako merkataritza establezimenduak 21:00etan itxi beharko dira. Neurri berriak bihar sartuko dira indarrean, eta azaro osora zabaldu ahal izango dira



Bigarren olatuko gaixo gehien dago orain ZIUetan

Uxue Rey Gorraiz

Koronabirusaren eraginez, 172 lagun daude ZIUetan erietxeraturik. Beste 1.881 positibo zenbatu dituzte Hegoaldean, eta bi lagun hil dira



Aire freskoa haurrentzat

Maria Ortega Zubiare

COVID-19aren harira haurrei ezarri dizkieten «neurri zorrotzen» gaineko kezka azaldu dute hainbat eragilek. Horiek leuntzeko eskabidea egin du Haurrak Ere Bai plataformak.

Azken olatua: COVID-19 luzea

Gorka Oribe

Irakurle agurgarria:

Honaino iritsi zarenez, eskaera bat egin nahi dizugu: irakurtzen ari zaren edukia eta egunkaria babestea, konpromiso ekonomikoa hartuz. Publizitatea eta erakundeen dirulaguntzak ez dira nahikoa BERRIAren etorkizuna bermatzeko. Sarean eskaintzen dizugun edukia irakurtzen duzuen milaka irakurleek proiektuari ekarpena eginda, urrutira iritsiko ginateke.

Kazetaritza libre, ireki eta independentea egin nahi dugu euskaldunontzat. Euskaraz informatzea delako gure eginkizuna, eta zure eskubidea. Lagun gaitzazu bide horretan. Idatzi gurekin etorkizuna. Geroa zugan.

Martxelo Otamendi

BERRIAko zuzendaria

Izan zaitez BERRIALaguna